

## Mejora Fundazioak bere egoitza berria Kordoi Etxea ospetsuan ireki du



Kordoi Etxea berpiztu da, eta antzina izan zuen Erdi Aroko Hiriguneko erakargune izaera berreskuratu du. Bere sortzaileak, Juan Sanchez Bilbao, mailegu-gune xedea eman zion, gero XV. mendean ehunen eta artilearen merkataritzaren toki bihurtu zen, azken hamarkadetan erakusgela izan dela. Caja Vital Kutxaren ekimenaren bidez, orain eraikina Mejora Fundazioaren egoitza bihurtu da, 55 baino gehiagoko pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko, jadanik 15.500 kide baino gehiago dituela.

Lekualdaketa honen bidez, Mejora Fundazioak Diputazio kalean zuen 220 metro koadroko bulegoaren zazpi urteko bizitzari bukaera eman dio, eta orain 1.300 metroko instalazio zabalak izango ditu eraikin ospetsu batean, kultura ondasuntzat aitortua izan dena.

Lekualdaketa hau ez da bakarrik Caja Vital Kutxaren arduradunen apustu bat Gasteizko Erdi Aroko Gunea berpizteko, zeren Mejora Fundazioarentzat, batez ere, bere izena gune historiko eta ospetsu bati lotzeko aukera baka-

rra baita, eta gainera antolatzen dituen hainbat jarduera egoitza bakar batean batzeko. Honek, gainera, erabiltzaile kopurua handitzeko aukera emango dio, urteko aurreikuspena 55 urte baino gehiagoko 40.000 erabiltzailetik gora dituela, ikastaroak eta tailerrak ere handituko di-

### Tailerrak eta jarduerak leku bakar batean elkartu ditu, non 55 urte baino gehiagoko 40.000 laguni baino gehiagori urteko zerbitzua eskainiko dien

rela. Anton Lopez de Aberasturi eta Fernando Perez Simon arkitektoek zuzendutako lan hau hamaika hilabetetan burutu egin da, 1,9 milioi euroko inbertsioa izan duela, altzariak barnean sarturik. Honek esan nahi du, alde batetik, aurreikusitako denbora-epeak bete direla, eta beste aldetik hasierako aurrekontuaren gainean 150.000 euroko aurrezpena lortu dela.

Caja Vital Kutxaren ekimen hau adin nagusikoei espresuki zuzendutako informazioa eta komunikazioa eskaintzen Estatu mailan lehena izan zen. Bere zazpi urteko bizitzan nagusien alde eta nagusientzako lan egiten dutenen topagune izateagatik nabarmendu da, modu berean hirugarren adinean espezializatutako dokumentazio zentro gisa, non esperientziak trukatu daitezkeen, eta baita elkarrekiko ekimenak talde honen ongizatea eta bizi-baldintzak hobetzeko ere.

Mejora Fundazioaren egoitza berria herritarrentzat irekia egongo da astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:00etara eta 16:30etik 19:00etara, eta ohiko jardueraz gain, bisita gidatuak antolatu ahal izango dira. Berez lekualdaketa honek ez du ekarriko eraikin historiko gisa Kordoi Etxearen itxiera bisitatua ahal izateko. Herritarrak bertaratu ahal izango dira erakusketak txikiak ikusteko, baita Dorrearen ingurua eta Gela Gotiko ikusgarria ere.

## Bizitzeko garaia

Fundazioaren zeregin nagusia 55 urte baino gehiagoko bizi-kalitatea sustatzea da. Horretarako, laguntza-, kirol-, kultura-, aisialdi- eta boluntariotzako programa zabal batean dihardu, zeinak urteen joan-etorriaz, bazkideen parte hartze bikaina lortu duen.

Bere ekimenen garrantzitsuen artean Etxebizitzaren Egokitze Funtzionaleko Programa dugu. Gasteizko Udalarekin elkarlanean, bainuen egokitzea diruz laguntzen eta finantzatzeko, baita laguntza teknikoak jartzea nagusien segurtasuna bermatzeko eta bere familia inguruan ere egon ahal daitezkeen. Martxan

jarri zenetik, orain dela zazpi urte, Gasteizko ia 2.000 etxebizitzak eta Arabako gaineko herrietako 300ek baino gehiagok ekimen honen onura izan dute, hauetarako 2,75 milioi euroko dirulaguntza bideratu dela.

Modu berean, txangoak eta bidaiak antolatzen ditu, hitzaldi zikloak eta zineforuma, informatika ikastaroak, Interneta, arte-sorkuntza eta arte-kultura, ibilaldiak txirringaz edo eraztun berdearen zehar, edo aireko bataio moduko esperientziak berritzaileak.



## 'KREA ilargia' itzuli da

**Kultura berrogeita hamar proposamenek Gasteizko kaleak bereganatuko dituzte irailaren 11ko gaua**

Santa Maria Katedralaren elizatea, Artium Museo edo Falerina Lorategi moduko leku entzutetsuak, gune publikoei, ostalaritzako hogeita sei tokiri eta hiru liburutegi elkartuko zaie, hiriko kultura ekimen handienaren eszenatoki izateko.

'KREA ilargia'ren bigarren edizio honek Gasteiz irailaren 11ko gaua gaur egungo kulturaren hiri bihurtuko du. Arratsaldeko 4:00etatik goizaldeko 2:00etara, berrehun artistak baino gehiagok herritarrei berrogeita hamar proposamen eskainiko dizkiete -iaz baino hogei gehiago-, azken joerekin hainbat diziplinetan, esate baterako, dantzan, musikan, ikus-entzuzko proiektuetan edo antzerkian. Gainera, aurten KREA - Gaur Egungo Espresioak kartel honetan moda inguruko zenbait ekimen sartzen ditu, abangoardiako soinu instalazioak eta diseinu grafikoaren inguruan profesionalen bilera bat.



Modu berean, programazioan KREAk 2007. eta 2008. urteetan saritutako zenbait artisten lanak nabarmentzen dira, esaterako, Amaia Navascuesek Falerina Lorategian aurkeztuko duen 'El punto ciego'. Horrez gain, 'KREA ilargia'ren izate gazte eta diziplina anitzekoaren barruan bideo klipen gaueko maratoi bat egingo da, gune berritara ikus-entzuzko sorkuntza zabaldu nahi duela. Proiektutako lanak joan zen uztailen deitutako lehiaketara aurkeztutakoen artean aukeratu dira.

*Berri gehiago: [www.kreared.com](http://www.kreared.com)*

## Irudiak helburu baten bila



**Beste behin ere, argazkia izango da protagonista Caja Vital Kutxa Fundazio Aretoan egingo den erakusketa berrian.**

Irailaren 10etik aurrera Asier Bastida argazkilari gasteiztarraren 'Izarraren Lorratzak' berrogeita hamar bat-bateko argazki-ikusleei Bulgariako

familia baten historia hurbilduko die, non itxaropena eta hobeto bizi ahal izateko bizi-leku berri bat bilatzen diren.

Formatu handiko eta atzera-argiztatutako euskarriko irudiek protagonisten berezko historiari zentzua emango dion bidea bilatzen, nola igarotzen dituzten egunak eta hauen bizitza erakutsiko dituzte. Bere objektiboaren bidez Bastidak haien lurra utzi behar izan duten eta etorkizun baten bila nomada bihurtu diren pertsonen egindako bidaiaren garrantzitsuen hartu izan du. Gida izan zitezkeen izar diridirsuen laguntza barik, beraien oinatzen bidean lagatuko arrastoek seinalatua, haien indar ahulak bezain sakonak.

Erakusketa hau urriaren 12 arte ikusgai egongo da, ondoko ordutegian: astegunetan 18:30etik 21:00etara; igande eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:30etik 21:00etara.

## Produktu BAT aztertzen

### Zer da?

Mailegu pertsonal bat da, zeinak, heriotzagatiko edo balioezintasunagatik amortizazio-asegurua gain, langabezia edo aldi baterako ezintasun kasuetan kuoten ordainketa estaltzeko beste aseguru bat due.

### Zer abantailak ditu?

- Tramitazioa azkarra eta erraza da.
- Erosoa: Eskaera Vitalneten bidez egin daiteke. Ordenagailu batetik, dokumentu, izapide edo sinadurarik gabe. Bezeroak, 2 edo 3 ordutan, bere mugikorrean mezu bat

## Mailegu Pertsonal Babestua

jasoko du, eskatutako dirua sartu dela adieraziz.

- Konfidentziala: Ez da azaldu behar zertarako den dirua.
- Interes-tasa finkoa: kuota aldaezina da, eta amortizazio edo kitapen aurreratuetatik inolako komisiorik eta gasturik gabe.
- Kuota eskuragarriak: 8 urte arterako epea amortizatze-ko, 300 eta 60.000 euro bitarteko zenbatekotarako.

### Zer baldintzak ditu?

Vitalneten bidez kontratatuz gero, Vital Kutxan nomi-

## Berri gehiago

### 'Vital programa, Araban zehar' en agenda eta Jaibus

- **Irailaren 4a:** Abesbatza Larrazubín eta musika Kripanen eta Zurbanon
- **Irailaren 5a:** Musika Arrietan eta Lapuebla de Labarcán, eta abesbatzak Armiñonen eta Argantzun
- **Irailaren 6a:** Abesbatzak Berganzon, Egiletan eta Kripanen
- **Irailaren 11:** Jaibus Dulantzira, eta musika Villaverden
- **Irailaren 12a:** Jaibus Eltziegora, musika Legutianon eta Pobesen
- **Irailaren 13a:** Abesbatzak Legutianon eta Pobesen.

### Hizkuntza Eskolaren ikasturte berria hasiko da

Hizkuntza Eskolan 2009-2010 ikasturterako izena emateko epea iraila osoan zehar irekia egongo da. Izena eman nahi izango duten ikasleak Jesus Obrero eraikineko bulegoetara hurbildu beharko dira (Estenaga apezpikuaren kalea, 1) 17:30etik 21:00etara.

### Mahats Bilketaren Festa

Datorren hilaren 13an, igandea, Paganosen Arabako Errioxako Mahats Bilketaren Festaren XVI. edizioa izango da. Aurten ere Caja Vital Kutxari esker ohiko mahatszapalketa egin eta lehen muztioa dastatu ahal izango dugu.

### Magialdia 2009

2009ko Nazioarteko Magia Jaialdiari esker, hil honetan magiak Gasteizko kaleak hartuko ditu. Aurreikusitako ekitaldien artean egingo diren bi 'Caja Vital Kutxa Haur Magia Festak' azpimarratu behar dira. Azken hauek irailaren 16an eta 19an izango dira Caja Vital Kutxa Fundazio Aretoan (Dendaraba M.G.). Bi ekitaldi hauetan Antonio Altea magoa protagonista izango da.

na helbideratuta duen bezero batentzako interes-tasa %7,25 da. Adibidez, 9.000 euroko zenbateko baterako, 3 urteko epean, hilabeteko kuota 292,07 euro izango litzateke.

### Zer bermeak estaltzen ditu aseguruak?

- Aldi baterako ezintasuna norbere kontura ari diren langileentzat, gaixotasun edo istripu batengatik izan bada.
- Langabeziakoa besteren kontura ari diren langileentzat ez aurreikusitako kaleratzeengatik.
- Heriotzagatiko edo behin betiko eta erabateko balioezintasunagatik maileguaren amortizazioa.